DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

EL PISTOLERISMO SE HACE DUEÑO DE LA CAPITAL

EL DIA

DONOSTIA. 1936'KO EPAILLAK 4'AN. URTEA VII. 1715'GARREN ZENBAKIA

EUSKAL GAIAK

Iru eskizaleen erokeria

I

¡Oloron-go bazkari ura! Nik geien atsegin izan nuana "pularda" guri ura, Cammenbert gazta ta Armagnac'eko koñaka.

Xigarroa ezpañetan sartu giñan automobillan ta.. zoazte elurretara.

Ba'ginjoazen ba erriz-erri otzaren otzaren lekura epelaren igesi.

Ango baztarrak oartuz batera non ikusten degun trena.

--¡Oi! ¿trena?.. Goizegi da gurea izateko. Artean besterik ez da askoz beranduago arte. ¿Gurea ote? ¿Gurai onetan? Gurea izango da. ¡Gurea da! ¡Ea mutillak!

Ta gure tarrantak zearo azkartu zuan ibil-neurria. Bira batera ta bira bestera, oraintxe zuzena arrapatzen genuan bidea, tximistaka gure gurdi ariña. Erriskaen barrena, milla arraioka. Aidean ginjoanez... ots ezurreri, adiskide.

¡Leia ikaragarria! Zuzenean gu geiago giñan; ordea, bideko ezkerestubira, gora ta bereak. Trena errien batean gelditzen zanean, noski, ez geunden loak artzeko.

Forges d'Abel zan azkeneko geltokia. Gu giñan aurreneko. Baño guk eskiak eta mendizorroak gertutzerako non azaldu zan tren madarikatua. Minutu bat egin orduko berriz abiatu zan.

Txingurri bat berak egindako zulotik etxe batean sartuko balitz bezela, alatsu sartu zan trena ikaragarrizko mendien azpitik egindako tunelean. Zortzi kilometroko tunela. Prantzian sartu Españian atera. ¡Agur, Canfranc!

Ta gu bertan.

Ezetz, ez geundela an bost orduan zai egoteko. Mendiz joan bear genuala. Automobilla gauza ez ta oñez igo bear. Amabi kilometro gora, beti gora. Ordu bat edo biren joan-etorriagatik obe genuala ango jatetxean egon nekatu gabe. Ezetz eta baietz.

--Or konpon, ni lertu orduko zuek ere bai. Abia gaitezen.

Tarranta sartu genuan bere gorde-lekuan, onuntzean artzeko. Mendizorroa erantzi genion, lotu-lotu, bizkarrari. Eskiakin eta eskumakillekin sorta bana egin. Naiko eztabaida ibillita, asi giñan abian ixilik.

--Goazen emendik, bidea asko laburtuko degu-ta.

Ezta itzegin naita ere ez genuan itzik aterako. Asi giñan arrapatazka mendian gora arbaztaeri tiraka. Eski-sortarekin arria jo ta erori. Antxumeek ez dute orrelako eragozpenik izaten. Gure asnasa, noski, larri. ¡Ea, mutillak! Oñetakoek txirrist' egiten ziguten. Noizbait, noizbait azkeneko oinkada egin ta bide zabalean giñan berriz. Lertu giñan. Asiera ederra. Errietan eman genion gure lagunari.

Bota aundiak astinduta bidean lotu gintzaizkion. Orduan gogoratu tarrantaren burrundara. Parrez asi giñan. ¡Azkarrean ikusitako ur-jauzi aiek! ¡Zurrunbano galantak! Etxerakoan obeto ikusiko.

Bidea esia jarrita zegoan. An berriz izugarrizko lur-jauzia. Bide zabalaren arrastorik ez zan zenbait metroan. ¡Ura lur-pilla mendian beera!

--Zoazte -- esan zigun bi "gendarme'"kin zegoan erritar batek-- zoazte orroko arribide ortatik, erromatarrak egiña, ta ogei minutu... ordu erdi bat-ko bentaja izango dezute.

Gelditu giñan. Lagundu zigun. Asi orduko ala diot nik: "mutillak ez zeuden txoro txarrak erromatarrak toki abetan ibiltzeko". Artean gu zoroago.

--Jarrai bide ortatik bide zabala topatu arte.

--Agur--eskupekoa emanez.

Asko illundu zuan. Aizeak elurtxinparta gogortuak botatzen zizkigun arpegira. Bidea oso txarra Lañoaren tartean gutxi ikusten. Lau terditarako illundu zuan.

--Oso illundu baño len arrapa dezagun bide zabala.

Elur-ura asko zotorren arri tarteetan. Arritik arrira lan txarra genuan. Bestetan putzu aunditan ibilli eziñean inguruz joaten giñan urrutituko bagiña ere. Orduantxen zapaldu nituan gogoz lenbiziko elurzapiak. Bidea beintzat ez galdu. Oju bat atera zuan guretako batek. Aurreko ura ez ote zan bide zabala. Baietz. Gaua argitzen asi zuan. Egualdia oztu. Elurra gero ta onaroago. ¿Illargi-gau izango al zan? Elur asko. Iritxi giñan, bat nekatu xamartua.

ANABI

(Urrengoan buka).

Ikasi daigun!..

JAUNGOIKOA'REN ARDURATASUNA

Yaungoikoaren Ardurapean bizi gara. Gizartea ta lurbirako gauza gustiak Berak darabiz. Bere lakemen barik ez da gauzarik txikiena be gertatzen. Txori bat be sarean ez da yausten, ez da buruko ule bat, Bera barik. Au ziñesteko egia da, naiz ta sarritan gizonok egi onetzaz astuta ibili. Egi oneik yatorkuz gomutara, auteskunde onetako izpar samingarriak yakin ondoren. Gogoan artzekoak dira, askoren biotzetan lo zorroan dagozan katoliko sentzuna ssupertu eragitekoak... Gizonok uste larregi geure alegiñetan sarritan ipinten dogu eta katolikotarrok be bai, gure alegiñak Yaungoikoa' ren laguntza barik alperrekoak dirala oartu barik. Orixe dala ta sarritan yo ta uts egiten dogu. Auteskundeetan batez bere, Bere legea gogoan artuta ibili bear gara. Egia, zuzentasuna ta maitasuna, gure alegin gustien oñarri izan bear dabe, onuratsuak izango ba' dira. Baña zer gertatzen da...? Yaungoikoa' ren irakatsiak aintazt ez dira artzen, katoliko burua egiten daben askok be, Aita Santua'k, gizarte auzia, batez bere ugazaba ta langille artekoa, bakez atonduteko emon dituan irakatsi argi ta garbiak, ez dituez aintzat artu nai..... guzurra, andikeria ta bidegabekeria au rrez ikusi dogu, eta oñari orren gañean ezer ezin iragi, gauza oneik ezin urten, oin gertatu dan antzera...

Yazokun onetan argiro Yaungoikoa' ren eskua ikusi bear dogu. Oin tamalez agertzea baño len katoliko sentzunez yokatzea obeto izango litzakigun. Ez gara kikildu bear, aurrerantzean katoliko zintsoago izaten ikasi baño. Au, arrokeri, yauntxokeri ta guzurraren ondorena baño ez da. Zoritxar au osatzeko or dogu bidea: apaltasuna zuzentasuna, egia ta maitasuna...

IKASBIDE EDERRA

Auteskundeok; ikasi nai dabenari asko irakasten dautse. Onen ondorenak, Yaungoikoa' ren eskutik maitasunez datorkigun zigor lez burua makur artu daiguzan, zintsoago lan eta geideagazko maitasunaz astu barik otoi egin, azkenengo zenbakian esan gendun lez, ba, "otoitza bera guzur biurtzen da, geide edo urko lagunaganako maitasun biurtzen ezpada". (Le Osservatore Romano).

Asko dira, zoritxarrez, sakela geyegi maite dabenak, eta gauza gustiak baño geyago Yaungoikoa ta Bere zuzentasuna maitatu bear dala astuta, okereko bidea artzen dabenak. Oneik nai ba dabe, ta gustiz itsututa ezpadagoz, zer ikasi naiko dabe gaurko yazokunotan. Eta enparau gustiok be bai. Yaungoikoan yazokunen bidez itz egiten dauskku, eta naiz ta samingarriak izan, arre taz begiratu bear dautseegu, okerra non egon dan ikusi ta osabidea non dagoan yakiteko. Yaungoikoa'k emoten dauskuzan ikaskixun oneik, ondo ikasi daiguzan, aurrerantzean zintso, zuzen ta indarrak eta astia galdu barik yokatzeko.

Artu dogun taketeko au, geure onerako izango da, zigor lez begiratzen ba' dautsogu. Okerrak zuzentzeko, bide zuzena ikusteko, zintsoago izateko, garailari urteteko... Zuzen egoan, auteskunkeak baño egun batzuk lenago idatzi eustan aizkidea: "Otoitz bearrean gagozak, zigorra etorri eztakigun orrenbeste gorrotoen ordez". Gorrotoaren zigora, maitasun zintzoagaz urrindu geinke, ainbeste bider esan degun lez. Maitasun legea beti ta nai non eta nai nogaz, googan euki bear dau kistar zintzo danak... auteskundeetan be bai, oin iru aste esan gendunez. Eta esan degun gustia egiztuta ikusi dogu. "La Vie Intellectuelle", pantzetar aldizkingi ederrean, Noble abak "Kistar maitasuna, eta politikako alkar aitu eziñaz" deritxon idazlan eder baten. Benetan irakurgarri da illa onen 10' ko zenbakiak dakarren lan sakon au.

GERO TA ZINTSOAGO

Lurreko gora-berakatik ez gara larregi ikaratu bear. Ziñestean sendo ta gizonki yokatzeko diñesku Paul Deunak. Egundo be lur yota gelditzea ez da onuratsu izan. Min artzen danean, ¡ayene!... berez esaten da, baña, gogoratu gaitezan, lurbira onetan, gustia galdu nai ezpadogu, kementsu ta eten barik yokatu bear dogula; bildurtzen ba gara ta ezer ez egin, umeen antzeko biurtzen gareala, eta Dante'k esaten eban lez: "Kikil eta bildurtien erria, ez dala txalogarri ta gorrotogari bez; auts pillo bat bakarrik dala..." Eta yakiña, auts pilloa aixeak sakabanatuta eroaten daben tokian yausten dala... Katoliko ta euskotar gareanez, olangorik ez dagokigu. Kementsu ospea daukogu, eta oin egiztu bear dogu, gorroto barik, baña zintzo Yaungoikoaren eskubideen aldez, al dogun gustia dakigula, eta geure euskelerriaren bearrizanakaz astu barik, gustiok anaitasunik andienean, ekin bear dautsogula, gure asaben antzera katoliko ta euskeldun zintso izanaz...

Gorrotoak alde batera itxita, bakezale izan gaitezan, baña "egizko bakezale", Aita Santuak ainbeste bider esan daben lez, "egia, zuzentasuna ta maitasuna", oñarritzat daben bakearen zale, eta olantxe garaitzagaz larregi zoratu barik eta azpiratuak izatea geyegi kikildu barik, gure asaben ondorengo zintsoak izango gara...

Gama

ERRIAREN ABOTSA

ALBIZTUR'TIK:

Lengo igandean erri ontan eman genitun autarkien erreskada, ara jarraiki:

Pikabeak, 136; Irujo'k, 135; Irazusta'k 135; Lasarte'k, 135; Lojendio'k, 3; Paguaga'k, 2; Oreja'k, 2; Mugica'k, 2; Anso'k, 1; Apraiz'ek, 1; geldo edo umekerizkoak, 6.

Emengo zarrontzaleetako jauntxo ta jauntxa batzuek:

Ez dute esnatu nai
beren lozorrotik:
kristauok ez genuke
bear orren setati.
Anai katolikoai
ez laguntzeagati..
botorik eman gabe
nora zoazte orti?

Oraindik geigo dana,
besteai galerazten,
ezin zeizken ibilli
burutsu ta zuzen.
Maitasunean argal,
zikoizkeriz gizen...
orrelako kristauak
ez zaizkit gustatzen!

Luistar

AYA'TIK:

Alde ederra igande batetik bestera. Otsaillaren 16, auteskundeak dirala ta burrukan, eta andik zortzigarren egunera berriz len bezelaxe danak anaitasun eta alkartasunik ederrenean Auteskundeak dirala ta ¿zergatik olako ezpain eta kopetak? ¡Utikan! Jaungoikoari eskerrak, ¿ez al gera ba, Aya'tar guztiok katoliko ta euskaldunak? Eta katoliko geranez, ez aldegu guztiok Jaungoikoa maite eta euskaldun jator bezela "Lege-zarra". Danok sinismen eta asmo batekoak izan eta ¿zergatik orrenbeste iskanbilla? Aztu ditzagun bein betiko oraindañoko ibilliak eta batu gaitezen guztiok beti-betiko Jel alde, au da, Jaungoikoa eta Lege-zarraren alde, beti katoliko zintzo eta euskaldun jator bezela jokatu dezagun. Gaurtik aurrera, Ayarrak Aya'rentzat, Aya Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Jaungoikoarentzat izan bear dute. Bukatu dira gure erri maite onetan auteskundetako asarreak, dana ta danok gure aberriarentzat eta gure aberri kutuna Jaungoikoarentzat.

ANTZERKIA. — Aya'ko neskatx argiak, oso jaitxo polita eratu ziguten igaro zan igandean. "Gona Gorritxo" poxpolin-jolas abestiakin asiera eman zien, eta ipui polit baten ondoren "Lore bat loitan" Amundarain'dar Andoni jaunaren antzerkia antzeztu ziguten. Txalo ederrik irabazi zuten, batez ere antzezlariak. Jende asko izan zan ikusten eta danak berriz ere olako jaitxo ederrak ikustea joateko gogoakin irten giñan. Ia, ba, zuen erritarren gogoa ta naia betetzen dezuten. Eskerrik sutsuenak jai onen zuzendari izan diran lekaime zintzoai ere; jarrai aurrera orre laxe.

Ayarra

Arrai saltzallea

Ikus kai inguruan arrai saltzallea...
entzun bere deadar goxo, esnalea.

Burun gain otarra du, arraitxoak ber-
(tan...
baiño adimena du maite ametsetan.

Euskeraz oiu dagi: ¡ona arraitxoak!
irri barre, bitartez... bere ezpaintxoak.

Gazte ametslaria zeran arraiduna...
ez zazula baztertu... euskera txukuna.

Zeure irriparretan nasturik euskera...
zoaz txaidetan zear, arraiak saltzera.

"Kai-Alde"

Mutriku'n.

Orquesta Filarmónica Donostiarra

Se convoca a Junta general extraordinaria (para resolver asunto urgente) que deberá celebrarse el jueves, 5, a las siete y media de la tarde.

El presidente,
JAIME BRUNET

Lea Vd.

EL DIA

Soldados de la guardia imperial en una de las principales calles de Tokío, y que hubieron de situarse en posiciones estratégicas para impedir el desarrollo del golpe de Estado reciente, ya sofocado

Teatros y Cines

EL VIERNES, EN EL MIRAMAR
"La Kermesse Heroica"

He aquí una película que llega con la etiqueta de un primer premio del CINEMA FRANCES. Tal galardón tenía que despertar naturalmente, la curiosidad de los cineastas con sus perjuicios y recelos, pero unos y otros se trocarán bien pronto, al correr de las primeras escenas, en sincera admiración.

Sobre el fondo evocador de las hazañas guerreras de los Tercios en Flandes, Jacques Feyderm, rebosante de buen humor, ironía y gracia de la mejor ley, sin hacer en ningún momento, pese a lo peliagudo del tema, la más ligera concesión al mal gusto. Aquilatando mucho, dijérase que en el argumento, apunto un leve trazo característico sobre el empuje y bravura de los soldados de aquella época, pero tan velado y sutil, que toda la obra resulta una apología en forma externa, de las virtudes mercantiles de los españoles.

Esto cuanto al asunto imaginario, de gran originalidad y tensión cómica. Pero es que, además la técnica empleada en el film es otro acierto rotundo. Angulos atrevidos; gran movilidad de la cámara sin perder el rimo adecuado; evoluciones perfectas de las masas, que en muchos instantes dan vida a la película y fotogramas de gran belleza.

Otro acierto es el reparto ponderado y ecuánime, a cargo, los principales papeles, de artistas de tanta fama y valía como Francoisse Rosay, Jean Murat y Louis Jouvet.

Quedamos por lo tanto, en que el premio concedido a esta producción lo merece en justicia.

EL VIERNES EN EL PRINCIPAL
"Currito de la Cruz"

Es "Currito de la Cruz" una cinta que nadie, al verla, dudará en calificarla como el trabajo más bello que se ha realizado hasta el presente en la cinematografía nacional, y que ha llevado a la pantalla, reflejada en imágenes de visión perdurable, toda la ternura, todo el drama, toda la poesía, todo el encanto de la obra original, la cual queda magníficamente plasmada, con suprema riqueza de matices, en la fotografía del "film".

Todo ello coligado nos da una realización sencillamente grandiosa, y admiramos, en bellas imágenes, la labor imponderable del operador que, bajo los dictados de Fernando Delgado, director del "film", ha llevado a cabo una fotografía nítida, a la vez que recia, que, sin perder sus cualidades principales, la contemplamos llena de rasgos de artista, trazada con mano maestra, y en la cual siempre encontramos bellos cuadros que compaginan admirablemente con los tipos de la trama que aprisiona.

Es en sí "Currito de la Cruz", cinta producida por E. C. E. - Febrer y Blay, una película en la que el arte cinematográfico se manifiesta con lo que él nos puede ofrecer en esta clase de producciones; bellezas aquí y allá, encuadradas en un argumento sencillo, de simpatía y atractivo, pero de gran fortaleza.

A. C. DE PADRES DE FAMILIA

Un tríduo del Doctor Pildain

Según tuvimos ocasión de anunciar a nuestros lectores, mañana, jueves, dará comienzo en la iglesia del Buen Pastor un solemne triduo, organizado por la Asociación Católica de Padres de Familia de Guipúzcoa en el que nuestro ilustre paisano don Antonio Pildain, desarrollará, con la elocuencia que le es tan característica, temas de suma actualidad

Estos actos. religiosos darán comienzo a las siete de la tarde y prometen verse concurridísimos, tanto por la admiración que despiertan siempre las oraciones sagradas, como por el interés de los temas que va a explanar el ilustre canónigo.

SOBRE LA OBEDIENCIA

Conferencias pedagógico-educativas

El lunes pronunció su segunda conferencia pedagógico educativa el Padre Gregorio Murguía, ilustre profesor de esta ciudad, continuando la serie organizada por la Asociación Católica de Padres de Familia de Guipúzcoa.

Aunque ni el tiempo, ni las circunstancias, eran propicias para ella, el salón de la Asociación estuvo animado, muestra del interés despertado por las sugestivas lecciones anunciadas.

Expuso el conferenciante primeramente, en síntesis, el contenido de su primera lección, y señaló el tema de la presente, comenzando su exposición describiendo la manera de producirse de muchos niños en el hogar y en el colegio, en cuanto a la obediencia, y dando su parecer ante esta antinomia.

Trata a continuación del llamado moderno concepto de la libertad y espontaniedad del niño, que ni es moderno ni es bueno, porque es muy viejo y tiene por defecto fundamental el de negar la evidencia de la inclinación del hombre al mal, como consecuencia natural de su caída original.

Expone en qué consiste la obediencia cómo se logra, las ventajas que tiene, los defectos que deben evitarse, y el modo como se logra educar debidamente a los niños, huyendo de los errores en que se incurre generalmente por los padres, o educadores al tratarlos. En esta parte de la conferencia fué realmente interesante, entretenida y aleccionadora.

Terminó el Padre Murguía su práctica y meritoria lección exponiendo cómo es el arte de mandar, en qué consiste y cómo se logran los resultados apetecidos, resultando beneficiosos para los padres, los educadores y los que son dirigidos.

El público aplaudió cariñosa y efusivamente al conferenciarte, que anunció su tercera lección pedagógico educativa para el próximo lunes, a las siete de la tarde en los mismos locales, Fueros, 5, entlo. derecha.

El tema de esta lección será el siguiente: "La edad peligrosa e incomprendida. Características de la misma. Formación de la personalidad. Cuidados que requiere. La conquista del corazón joven."

Anuucie Vd. en EL DIA

Sección de Socorros de la Confederación de Maestros

Ingresos y gastos durante el cuarto trimestre del año 1935; Ingresos por cuotas ordinarias, extraordinarias, intereses, etc., 7.534,74 pesetas.

Gastos diversos y socorro de 750 pesetas a don Mariano C. Sanz, de El Cuervo (Teruel), patente número 253, jubilado por imposibilidad física, total 1.153,30 pesetas.

Superávit en este trimestre, 6.381,44 pesetas, que unido a la existencia en Caja de 79.921,89, arroja un superávit total o fondo de reserva de pesetas 86.303,33.

Préstamos o anticipos reintegrables concedidos durante el trimestre, 22, por valor de 11.900 pesetas.

Altas de nuevos asociados, 13.

—o—

Los anticipos reintegrables concedidos desde la fundación de esta importante Sección arrojan la cifra de 354, por la cantidad de 121.074 pesetas.

Los reintegros hechos a la Caja suman la cantidad de 76.101,35 pesetas.

Actualmente se halla distribuído entre los socorristas que han hecho uso de los anticipos un capital de pesetas 44.972,65.

La diferencia hasta el capital efectivo se encuentra en títulos de la Deuda, Banco "Los Previsores del Porvenir" y Caja Postal de Ahorros, todo ello a nombre de la entidad y debidamente garantizado.

—o—

Maestros, acudid a esta importante Sección, teniendo en cuenta los grandes beneficios que proporciona por la módica cuota de tres pesetas al mes.

Hasta los cinco años de asociado, mil pesetas; de los cinco a los diez, mil quinientas pesetas; de los diez a los quince, 2.000 pesetas; de quince a veinte, 2.500 pesetas; de los veinte a los veinticinco, 3.000 pesetas; de los veinticinco a los treinta, 3.500 pesetas; de los treinta a los treinta y cinco, pesetas 4.000; y de los cuarenta en adelante, 5.000 pesetas.

—o—

Para detalles, impresos, reglamento, etc., al Tesorero, don Ladislao Santos. maestro nacional de Hortaleza (Madrid).

La Comisión ejecutiva

CIRCULO DE SAN IGNACIO

Conferencia religiosa semanal

Hoy, miércoles, a las siete y media de la tarde, Lección Sacra sobre los Hechos Apostólicos, cap. XI, vers. 27 y sigs., por el P. Ignacio Errandonea, S. J.

Sumario: Estado de las cosas en la Iglesia en el momento a que se refiere el pasaje. - Las grandes visiones de San Pablo hacia el año 43, narradas en el cap. XII de la "Segunda Epístola a los Corintios. - El profeta Agabo y su predicción del hambre en toda la tierra; significado de esta expresión. - Cumplimiento de esta profecía. - Los profetas y su oficio en la primitiva Iglesia. - Bernabé y Saulo enviados con la limosna a Jerusalén. - Los presbíteros y su cargo en los tiempos apostólicos.